

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Murchison-eko meteoritoan ustekabeko konposatuak aurkitu dituzte

AUSTRALIAKO MURCHISON HERRIAN 1969an eroritako meteoritoa aztertu berri du Philippe Schmitt-Kopplin kimikariak zuzendutako lantalde frantziar-austriarrak, eta *Proceedings of the National Academy of Sciences* aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak.

Meteoritoa erori bezain laster jaso zenez, ez zuen Lurreko substantziekin kutsatzeko denborarik izan, eta horregatik oso interesgarria da bere baitan gordetzen duen informazioa. Oraingoan, aminoazido ugari topatu dituzte eta 14.000 atomo-multzo desberdin ere bai, aurrez detektatu gabe zeudenak. Aurkikuntza horren arabera, zientzialariek ebazti dute milaka eta milaka izan daitezkeela meteoritoan dauden konposatu organikoak. Horrek adierazten du Eguzki-sistemak, bere hastapenetan, gaur egun Lurra duena baino askoz molekula-dibertsitate handiagoa zeukala.




ASTROPT.ORG

Munduko ordularirik zehatzena

AEBETAKO NIST institutuko talde batek munduko erlojurik zehatzena prestatu du: aluminiozko ioi bakarra duen ordulari optikoa. 3.700 milioi urte iraun dezake, eta epe horretan izan dezakeen desbiderapena segundo batetik beherakoa da. Orain arte, munduko ordularirik zehatzenak ordulari atomikoak izan dira, zesio-133 atomoaren bibrazioetan oinarrituak. Izan ere, segundo baten iraupen zehatza zesio-133aren bibrazioen arabera definituta dago. Estimaten da ordulari atomikoek 80 edo 100 milioi urte iraun ditzaketela, segundo bat baino desbiderapen txikiagoarekin.

Ordulari atomikoak ordulari optikoez ordezkatzek zilegi dirudi orain, baina zientzialariek uste dute hobe dela probak egiten jarraitzea, aluminioa ez den beste atomo batekin emaitza hobeak lortuko direlakoan baitaude. Eta ez da ahaztu behar munduan dauden ordulari atomiko guztiak ordezkatzek ez dela batere merkea.



Y kromosomak azkar eboluzionatzen du

Y kromosoma arrarotasun genetikotzat hartzen da. Uste zena baino askoz ere azkarrago eboluzionatzen omen du, eta eboluzio horren azterketa egiten ari dira zientzialariak, batez ere gizonen antzutasunaren zergatiak ulertzeko.

<http://ttiki.com/10747> (Gaztelaniaz)

Nola ailegatu ziren zenbait animalia espezie Madagaskarrera?

Hipotesi ugari izan dira lemurak, azeriak edo mangostak Madagaskarrera ailegatzeko egindako bideei buruz. Indar gehien hartzen ari den teoria da aipatu animaliek itsasontzi naturaletan, hau da, enborrez naturalki sortutako ontzietan, bidaiatu zutela.

<http://ttiki.com/10748> (Gaztelaniaz)

Antzinako Egipton, makillajea sendagaia ere bazen

Egiptoarrek berunean oinarritutako makillajea erabiltzen zuten, ustez ederrago aurtekete euren buruak, baina berriki egindako ikerketa batek azaltzen du makillaje horren bidez tropikoetan hain ohikoak diren begi-infekzioei aurre egiten zirela. Horretarako, Parisko Louvre Museoa dauden laginak aztertu dituzte.

<http://ttiki.com/10749> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com
T.943 37 67 16